

Etimologia, filologia indoeuroparra eta euskara

Etimología, filología indoeuropea y euskera

**Étymologie, philologie indo-européenne et langue
basque**

**Etymology, Indo-European philology and Basque
language**

GORROTXATEGI, Joakin
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Noiz jaso: 2020-12-16
Noiz onartua: 2021-02-12

Euskera. 2019, 64, 2, 2. 1077-1102. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoaren argitalpena dela eta, lan honetan hizkuntza indoeuroparren eremuan egindako hiztegitzinta etimologikoaren berri ematen da. Neogramatikarien ildotik ekoiztutako hiztegiak tratatu ondoren, alorrean eragin handia izan zuen Ernout-Meilleten latinaren hiztegi historiko eta etimologikoaren ezaugarriak aztertu dira. Besteak beste, ondoko puntuak landu dira: filologiaren ekoizpenak diren *Thesaurien* beharra, gure kasuan *Orotariko Euskal Hiztegiak* bete duena, Benvenisteren erro teoriak IE-ren ikerketan izan zuen eragina, azken hamarkadetako ikerketek ekarri duten ikuspegi berria, aurre-rapen hauek IE-zko hiztegitzintzan, batez ere Leidengo eskolaren egitasmoan, izan duten ondorioa. Azkenik etimologiaren alde semantikoa eztabaidatu da.

Gako-hitzak: Hiztegitzinta etimologikoa, hizkuntzalaritza indoeuroparra, Benveniste, erroaren teoria, euskal hizkuntzalaritza diakronikoa.

Al hilo de la publicación del *Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa*, en este artículo se dan a conocer los diccionarios etimológicos publicados en el ámbito de las lenguas indoeuropeas. Tras analizar los diccionarios impulsados por los neo gramáticos, se analizan las características del diccionario histórico-etimológico del latín de Ernout-Meillet que tuvo gran repercusión en su disciplina. Entre otros se han tratado los siguientes puntos: la necesidad de los *Thesaurus* producidos por los filólogos, labor que en el caso del euskera ha desempeñado el Diccionario General Vasco, la influencia de las teorías de la raíz de Benveniste en el estudio de las lenguas indoeuropeas, la nueva perspectiva que han generado las investigaciones de las últimas décadas y las consecuencias que ha tenido en la lexicografía de las lenguas indoeuropeas, sobre todo en el proyecto de la escuela de Leiden. Por último, se ha comentado el aspecto semántico de la etimología.

Palabras clave: Lexicografía etimológica, lingüística indoeuropea, Benveniste, teoría de la raíz, lingüística vasca diacrónica.

Suite à la publication du Dictionnaire historique et étymologique du basque *Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa*, cet article nous présente les dictionnaires étymologiques publiés dans le domaine des langues indo-européennes. Après une analyse des dictionnaires produits par les néo-grammairiens, nous analysons les caractéristiques du dictionnaire historique et étymologique du latin d'Ernout-Meillet qui connut un grand retentissement dans sa discipline. Nous avons traité en particulier les points suivants : la nécessité des *Thesaurus* produits par les philologues, travail qu'a réalisé pour le basque le Dictionnaire Basque Général, l'influence de la théorie de la racine de Benveniste dans son étude des langues indo-européennes, la nouvelle perspective qu'ont engendrée les recherches des dernières décennies et les conséquences induites dans la lexicographie des langues indo-européennes, surtout dans le projet de l'école de Leiden. Enfin, nous avons traité l'aspect sémantique de l'étymologie.

Mots-clés : Lexicographie étymologique, linguistique indo-européenne, Benveniste, théorie de la racine, linguistique basque diachronique.

Following the publication of the *Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoa*, this article presents the etymological dictionaries published in the field of Indo-European languages. After analyzing the dictionaries promoted by the neo-grammarians, are analyzed the characteristics of the historical-etymological dictionary of Latin by Ernout-Meillet, which had a great impact on his discipline. Among others, the following points have been dealt with: the need for the *Thesaurus* produced by philologists, a task that in the case of Basque has been carried out by the General Basque Dictionary, the influence of Benveniste's root theory on the study of Indo-European languages, the new perspective generated by research in recent decades and the consequences it has had on the lexicography of Indo-European languages, especially on the Leiden school project. Finally, the semantic aspect of the etymology has been commented.

Keywords: Etymological lexicography, Indo-European linguistics, Benveniste, root theory, Basque language diachronic linguistics.

1. Nire esker beroenak euskaltzainburu den Urrutia jaunari, jardunaldi hauen batzorde akademikoari, Euskaltzaindiari eta Joseba Lakarrari aurkezpen honetara gonbidatu izanagatik.

Lakarra jaunak aurkezpen honetan parte hartzea eskatu zidanean, ezin izan nion ezetzik esan, alde batetik, konturatzen nintzelako gaurko eguna egun handia izango zela euskal hiztegiarentzat eta batez ere hiztegi honen egile nagusiarentzat, duela ia 30 urte hasi zuen ikerlanari nolabaiteko buruztea eman diolako. Badakit, bestalde, ekitaldi honetan egoteko arrazoia Joseba Lakarrarekin aipatu urte guztietan izan dudana harremanarengatik dela eta inolaz ere ez euskal hiztegiaren edo etimologia kontuetan egingdako nire ikerketa edo lanarengatik.

Testu honetan ondorengo gaiak eztabaidatuko ditut: sarrera gisa, zenbait hitzen lehen agerraldia aurreratzeko egin dudana ekarpena aipatu ondoren (§ 2), etimologiaren ezberdintasuna euskal eta indoeuropar alorretan (§ 3). Gero neogramatikarien ekarpena (§ 4) tratatuko dut Ernout-Meillet-en hiztegi eredugarria (§ 5) aztertu baino lehen. Ondoren filologiaren ekoizpenak diren *Thesaurien* beharra, gure kasuan *Orotariko Euskal Hiztegiarena*, nabarmenduko da (§ 6), Benvenisteren erro teoriak IE-ren ikerketan izan zuen eragina (§ 7), azken hamarkadetako ikerketek ekarri duten ikuspegi berria (§ 8), aurrerapen hauek IE-zko hiztegiaren, batez ere Leizengo eskolaren egitasmoan, izan duten ondorioa (§ 9). Azkenik etimologiaren alde semantikoa eztabaidatuko da (§ 10).

2. Esan dudana bezala, ez naiz hiztegiaren ez eta euskal zein erdal hiztegiaren ikertzailea, aurkezpen honetan parte hartu duten batzuk bezala. Gehien jota, hiztegi erabiltzaile arrunt bat naiz, edo nahi bada, hiztegiaren.

Arlo honetan egin dudana ekarpena hutsa edo hutsaren hurrengoa da: hauen artean, Lakarrak askotan aipatutako (beti begi onez, gainera) nire “Vasco-Celtica”, non tradizioan zeltatzat emandako euskal maileguak aztertu eta kritikatu nituen (urteak dira eta beste saio bat mereziko luke

¹ Lan honek ondoko laguntzak izan ditu: a) PID2019-106606GB-C3-2 ikerketa proiektua (Espainiako Zientzia eta Ikerketa Ministerioa) eta b) Euskal Unibertsitate Sistemako IT1344-19 Ikerketa Talde Kontsolidatua (Eusko Jaurlaritza).

gaiak), edo XVI. mendeko Andrés de Poza lizentziatuak aipatu zituen euskal hitzen eta esapideen azterketa, hitz batzuen lehen agerraldia aurreratzeko eta esapideren baten esanahia argitzeko aukera eman zidana.

Azken urteotan, Hesperiaiko proiektuari, hau da, inskripzio paleohispanikoen edizio digitalak sarean zabalduko dituen egitasmoari eskaini diot ordu asko eta horren arrimura modu batera edo bestera Hispaniako eta Galiako izen propioen batze eta aztertzeari. Bertako izen indigenen bila nabilela, behin baino gehiagotan suertatu zait inskripzio berri ezezagun batzuekin topo egitea. Normalean ez dute interes handiko informazioa ematen, baina Frantziako Bourges hirian, antzinatean Bituriges Cubitarren hiriburua zen hartan, ofizio izen interesgarriak dakartzaten erromatar garaiko bi inskripzio latindar agertu dira.

Batak *acucularius* “orrazgile” hitza lekukotzen du, *-arius* latin atzizkiaren bitartez *acucula* ‘orraz txikia’ hitzetik eratorria.

Hitza orain arte iturri berantiarretan lekukotzen zen soilik, Isidororen *Hermeneumata* obraren eskuizkribu batean (CGL III 309, 26), forma edo irakurketa okerrean gainera (*cludarius*, grekozko *ῥαφιδοποιός* itzulpenari esker, *acucularius* zuzendua izan dena).

acūcūla hitza ‘orraz txikia’ IV. m. Bordeleko Marcellus eta Plinius Valerianusen obra teknikoetan lekukotzen da, pinuen orraz orriekin egindako edari bat aipatzen dutenean. Gure inskripzioak, beraz, gutxienez bi mendez aurreraten du lehen agerraldia. Jakina da latin klasikoan orratza *acus* zela eta forma honek erromantzeen artean sardinieraz eta Korsikako hizkeraz *acu*, *agu*, italieraz *aco*, *ago* eta errumanieraz *ac* formetan bakarrik izan duela jarraipena.

Mendebaldeko erromantzeetan *acucula*-k, *acus*-en txikigarriak, hartu zion tokia: fr. *aiguille* (fr. zah. *aguille*), prov. *agulha*, cat. *agulla*, esp. *aguja*, pg. *agulha*. Dokumentazioaren arabera Rohlfs erromanista handiak (Rohlfs 1979, 197-8, oh. 421) uste izan zuen aldaketa ez zela IV. mendea baino lehenago gertatu; orain aldaketaren (hau da, bata besteak ordezkatzearen) garaia zehatz jakin gabe ere, badakigu II. mendean *acucula* hitzak kompetentzia egiten ziola *acus* hitzari Galiako erdigunean.

Bigarren epitafioak, hain garbia ez izan arren, badu bere interesa. Hemen ere hildakoaren izenaren ondoren haren lanbidea adierazten da: *Cintusmo C/Garrigario* (datiboz).

Lehenagokoaren antzera, hitzak *-arius* latin atzizkia du, ogibide izenak, *carpentarius*, *lapidarius* bezalakoak eratzeko erabiltzen zena. Baina zein da hitzaren oina? *Carrico* /-a ez da latin hitza. Etimologia egiten hasiz gero, bi aukera bururatzen zaizkit.

- bata, zeltazko *carro-* ‘gurdi’-tik *-ico-* zelta atzizkiaren bidez osatutakoa, “gurdiarekiko” esanahia izango lukeena, “gurdibidea” kasurako, nondik gure *carrigarius*-ek bidearen nolabaiteko kudeaketa edo zaintza bere gain hartzen duenaren lanbidea adieraziko lukeen.
- bestea, latinaurreko **karra-* ‘harri, haitz’ hitzetik abiatzea; hor dugu gask. *garric* ‘rocher’, ‘haitz’. Hala balitz, **karrika-* ‘harrobia’ izango litzateke eta *carrigarius* ‘hargina’. Epitafioak dakarren irudia kontuan hartuko bagenu, bigarren aukera honi emango genioke lehentasuna.

Dena den, hitzaren oina bata edo bestea dela, hitzaren lehen eratorpena zeltazko *-ico-* atzizkiaren bidez egindakoa da, gure hitzean ahostundu egin dena. Luze eramango gintuzke zehazteak bokal arteko herskariaren ahostuntzearen hedadura eta kronologia zein izan zen mendebaldeko latin arruntan; azkenengo urteetan, bestalde, antzeko ahostuntzea galieran ere gertatu zelako frogak agertu dira, eta ezin jakin gure kasuan galierari edo latin arruntari egotzi behar diogun bilakabidearen erantzukizuna.

3. Euskararen lehen hiztegi etimologiko eta historikoaren aurkezpenean gaude. Orain arte ez da egon gure artean izen hori merezi izan duen obrarik. Lakarrak berak liburuaren hitzaurrean Tovar-Agud eta Trask-en saioak aipatu eta kritikatu ditu. Zerbait izatekotan etimologikoak dira, eurenak ez ezik beste askoren etimologiak batu eta komentatu dituztelako, baina inola ere ez historikoak, hitzen historia euren eginkizun eta interesetik kanpo gelditu zelako.

Tovar-Aguden hiztegiak XX. mende hasierako obra dirudi, euskara munduko hizkuntza ezagun gehienekin konparatzen zen garaikoa. Ez da harritzekoa, ordea, hizkuntzen arteko ahaidetasunez Tovarrek uste zuena jakin-

da. Haren ustez hizkuntza ahaidetasuna ez zen soilik jatorri bat eta bakarra izatetik hizkuntza multzo batek partekatzen zuen izaera, ahaidetasuna lortu baitzitekeen historian zehar aldameneko hizkuntzekin izandako ukipenen ondorioz ere: ukipenezko ahaidetasuna –“parentesco por contacto”– zertizon. Halako ideiekin ez zitzaion batere ezinezkoa egiten euskarak bere hiztegian hizkuntza askorekiko erlazioak gorde izana, eta seguruak ez baziren ere, zeinek daki, haren ustez ez ziren guztiz baztertzekoak.

Iruditzen zaigu halako jokabidea euskararen arloan gertatu ohi dela soilik, baina gure kasuan joerak marka ederrak lortu dituela ukatu gabe, ez da ahaztu behar zenbait hizkuntza indoeuroparretako hiztegiatan ere antzeko joerak izan direla, batez ere jatorrizkoak ez diren hitzak azaltzeko orduan. Arrazoa begi-bistakoa da: zenbat eta ilunagoa izan azaldu behar den hitza edo hitz multzoa, orduan eta ugariagoak substratuzko eta edozein hizkuntza ezezagunen bidez emandako argibideak. Euskararen eta hizkuntza indoeuroparren arteko ezberdintasuna honetan datza: grezieraren kasuan jatorri ez indoeuroparreko, hau da, printzipioz jatorri ezezaguneko, hitz multzoa mugatua da; euskararen kasuan alderantziz da: latinetik eta erromantzetik datorrena kenduta, beste guztia da –hitz eratorri garbiak izan ezik– printzipioz ezezaguna.

Edozein hitzunik daki *betilea* begi azaleko ilea dela eta *sehaska* ume txiki-kientzako *aska*. Ez du horretarako hiztegirik behar. Beste gauza bat da hitz horiek noiztik, zein esparrutan eta zein bizitasunekin lekukotuta dauden edo historian zehar edozein motatako aldaketarik egon den jakin nahi badu; horretarako, hiztegi historiko batera jo beharko luke. Baina, behar bada, *otsein* bezalako hitz baten aurrean ez luke asmatuko morfemen banaketa egiten eta osagaiak identifikatzen. Kasu horietan behar du hiztun batek hiztegi etimologikoa, zeinen eginkizuna den hain zuzen osagaien arteko erlazioa, aldaketen ondorioz ilundu eta mozarrotu dena, bere aurreko gardentasuneran eramatea: **ogi-sein*, “ogiarene truke bere familiarena ez den etxe batean bizi eta lan egiten duen sein”.

Baina zer egin *begi*, *bihotz*, *zaldi*, *behor* eta antzeko hitzen jatorria jakin nahi badu? Antza denez, hitz horiek euskarak bereak ditu, inondik hartu gabekoak, eta ez dakigu noiztik dauden bizirik hizkuntzan eta zein forma

edo itxura zuten lehenago, ezberdina baldin bazen behintzat. Hemen espainolezko ordainak diren *ojo*, *corazón*, *caballo* edo *yegua*-ren jatorria jakin nahi bagenu, ez genuke Corominas-Pascual-en hiztegiara joatea besterik latinezko *oculus*, *cor*, *caballus* eta *equa* hitzetatik datozela jakiteko. Azalduko digu, gainera, *caballus*-ek lehenagoko *equus* ordezkatu zuela, eta ordezkapen honen kronologia eta arrazoa. Hori espainolez ez ezik, inguruko erromantzeetan ere gertatu zela gehituko digu. Gure jakin-mina urrutiago eramán nahi badugu, ikasiko dugu hitz horietatik hiruk jatorri indoeuropar garbia dutela:

- lat. *oculus* < **h₃ok^w-(e)lo-* : gr. ὄψ /*ōps*/, ὄσσε: skr. *akṣī* : esl. *oči* ‘begi biak’: got. *augo*. Oinarrizko erroa **h₃ok^w-* da eta protohizkuntzara eramán daiteke. Latinaren eraketa ez dago zabaldua eta horregatik pentsa daiteke bilakabide partikularra izan dela.
- *cor*, *cordis*: **kēṛ* < **kérd-/kṛd-V-* : hit. *ker*, *kard(i)-* : skr. *hrd* : gr. κῆρ /*kēr*/: got. *hairto* /*herto*/ < **kerd-on-*. Latinaren bokalismoa *ɾ* bokalikotik erregulariki sortutakoa da. Aipagarria lat. *crēdo* ‘sinistu’ aditzaren etimologia: **kred-d^heh₁-* ‘bihotza jarri’.
- *equus*: **ék^wos* : skt. *ás^vah* : av. *aspō* : irl. *ech* : got. *aihwa-* : gal. *epos* : gr. ἵππος /*híppos*/. Hizkuntzalariek aspalditik dakite **ék^wos*, eraketaren aldetik, ez dela beste biak bezalakoa, desinentziaren aurretik bokal bat duelako, bokal tematikoa deitzen dena. Uste izan dute, gainera, eraketa molde hau, aitzin-hizkuntzarena izanik ere, azken fasekoa dela, eta hitza lehenagoko forma atematiko batetik eratorria dela, anatolikoaren lekukoek azken urteotan agerian jarri duten bezala; baina hortik aurrera konparazioak egitea zaila da. Batzuek, kontuan hartuta grezierazko eta sanskritoazko poesian formula ihartu gisa *ókées híppoi* eta *ás^vah* *ás^vah* ‘zaldi azkarrak’ agertzen direla, **h₁k^wo-* edo **h₁k^wu-* ‘zaldia’ gr. ὠκύς ‘azkar’ hitzarekin lotu dute, azken honen protoformatzat **h₁o-h₁k^w-ú* proposatuz (Beekes 2010).

Azken burutapen hau, guztiz erakargarria izan arren, espekulazioaren eremuan gelditzen da, barne berreraiketaren ondorioa den neurrian ez duelako konparazioaren aldetik erabateko onarpena jasotzen: printzipioz ὠκύς eta *ás^vah*-k *h₃* laringala eskatuko lukete; **ék^wos*, hitzak, ordea, *h₁* laringala, eta gauzak areago konplikatuzko latinezko *acu-pedius* ‘oin bizkorduna’ eta

enparauak $\acute{\omega}\acute{\kappa}\acute{\upsilon}\acute{\varsigma}$ eta *āśā*-ren kognatuak badira, orduan h_2 laringala egongo litzakete jokoan; bestalde proposatutako $*h_1o-h_1k-ú$ protoformak *o*-graduko erreduplikazio ezohikoa eskatzen du.

Hitz hauen protoformak segurantza nahiko handiarekin duela sei mila urte inguru kokatzeko gai bagara, metodo konparatiboak hizkuntza familia barneko materiala konparatuz eta landuz lortzen duen berreraiketari esker da.

4. Hizkuntza indoeuropar bateko hiztegia bi multzotan zatituko dute hiztegiileek: jatorrizko hitzak eta arrotzak. Lehenengok, osorik edo zatika, familiaren beste hizkuntzetan ordainak izango dituzte, soinu korrespondentziak erregulariki betetzen dituzten neurrian kognatutzat har daitezkeenak. Izen arrotzei jatorria bilatu beharko zaie, hemen ere kandidatuak izan daitezkeen artean konparazio lana eginaz: informazio linguistiko eta historikoaren aberastasunaren arabera multzo hau argituz joango da. Kontu haueztaz apur bat irakurri duen edozeinek dakien bezala, multzo bateko aurrerapenek badute bigarrenen bere eragina. Ezaguna da armenieraren sailkapenarekin gertatutakoa: hasieran indo-iraniar adarrekoa zela uste zuten, iranieratik mailegatutako onomastika eta hitz multzo handiagatik, harik eta Hübschmannek 1877an armenieraren bilakaera propioak argitu zituen arte.

Forma eta aldaketa fonetikoak / esanahia eta aldaketa semantikoa.

Hizkuntzalaritza zientzia bihurtu baino lehenago, etimologistek Varroren definizio famatu hartan “*cur et unde sint verba*” [zergatik eta nondik datozen hitzak] zergatiari ematen zioten pisu handiena, hitzen esanahien arrazoia kanpoko errealitatean aurkitzen saiatzen zirelarik. Hala jarraitu zuen kontuak, XIX. mendera arte, gure apologisten obrek ondo erakusten duten legez.

Horregatik, Humboldték bere aurreko jakitunen gehiegikeriak saihestu nahian, etimologiazko jardunetan hitzaren alde formala kontuan hartu behar zela aldarrikatu zuen (cf. Humboldt 1821, 12, eta nire iruzkina, Gorrotxategi 2019, 282-3).

Neogramatikariak izan ziren, dudarik gabe, soinu korrespondentziak eta lege fonetikoaren erregulartasuna agerian jarri zutenean, etimologia egiteko

modua errotik irauli zutenak. Harrez geroztik proposamen guztiek nahiz esanahiaren zein formaren aldetik ongi justifikatuta egon behar dute, hitzaren bilakaeran gertatu diren aldaketa semantikoak zein fonetikoak hizkuntzaren historian zehar izan direnekin zehatz identifikatu ondoren. Teoria mailan eta hizkuntzalaritza historikoaren ekintzan izan ziren aurrerapenek hiztegi etimologikoetan bere oihartzuna izan zuten. Hauetako bat Boisacqen grezieraren hiztegi etimologikoa da. Lehen argitaraldia 1916an izan zuen hiztegi honen izenburuak (*Dictionnaire étymologique de la langue grecque, étudiée dans ses rapports avec les autres langues indo-européennes*) garbi erakusten du hizkuntza familia barneko konparazioan hartzen duela etimologiak bere sendotasuna eta aurrera egiteko bidea. Baina konparazioa neogramatikarien erregelekin egin behar da, Boisacqek hitzaurrean dioen bezala: “*Le sporadischer Lautwandel, à quoi Curtius consacrait la moitié de son livre, a vécu*” [“Soinu aldaketa esporadikoa”, zeini Curtiusek bere liburuaren erdia eskaintzen dion, igaro da (hiztegi gintzan edo etimologiagintzan)]. Eta lege fonetikoaren garrantzia garbi gelditu dadin, Boisacqek 7-8 orrialdetan IE-tik grezierara gertatzen diren aldaketa fonetikoaren zerrenda dakar: “*Les sons de la langue grecque dans leurs rapports avec ceux de l’indoeuropéen commun*”.

Neogramatikariaren eraginari esker hizkuntza askoren, ez bakarrik indoeuroparren, gramatika historikoak eta hiztegi etimologikoak idatzi izan dira, hizkuntzalaritza historikoa eta konparatua bere urrezko garaira eramandu tenak. Joan den mendearen lehen herenetik hasita hizkuntza indoeuropar zahar garrantzitsu gehienek hiztegi etimologiko berriak aurreko belaunaldiak egindakoen tokia hartzen joan ziren. Hor ditugu latinaren eremuan Hofmannek Walderen hiztegi zaharrea oinarrituta ekoiztu zuena (Walde-Hofmann 1938) eta Ernout-Meilleten hiztegi eredugarria. Urte batzuk geroago Mayrhoferrek indiera zaharrarena argitaratu zuen, Uhlenbecken hiztegi zaharkitua guztiz eguneratuz (Mayrhofer 1956-) eta, grezierari dagokionez, gauza bera gertatu zen Friskek Boisacqen hiztegia ordezkatu zuean (Frisk 1960-).

Urte askotako konparazio praktikari esker, hiztegi gileak indoeuropar jatorriko hitzekin sentitzen ziren seguruen eta hiztegien zatirik handiena eta baliotsuena hitz horien etimologiari eskainita dago; horregatik dira aldi be-

rean indoeuropeerazko hiztegi etimologikoak. Euren artean, bai eta euren eta Pokornyren indoeuropeerazko hiztegi etimologikoaren (IEW) artean ere erlazio estuak sortu ziren, elkarri egiten dizkioten etengabeko aipamenak erakusten dutenez.

Gainera hiztegi kritikoak dira, ordura arte emandako etimologiak aztertu, kritikatu eta zuzenak ez zirenak alboratu zituztenak. Itzelezko lanaren ekoizpenak dira.

Baina, bestalde, hiztegiak normalean produktu kontserbadoreak dira, ikerketaren aurrerapenak astiro eta egilearen iritzien galbahetik igaro ondoren onartzen dituztenak. Frisken hiztegia adibide ona da.

XX. mendearen erdialdean argitaratzen hasia izan arren, eta ordurako laringalen teoria aspalditik arloan ezaguna eta erabilia izan arren, Friskek bere hitzaurrean justifikatu egiten du berreraiketa tradizionalen alde egitea. Frisken iritzi ez zen ezer irabazten ᾗω-ren etimologia egitean haren jatorria *ag- proposatu ordez *h₂eg- proposatzearekin.

Mizenikozko materiala ere ez du erabiltzen, hau ulergarriagoa bada ere, ezen lineal B idazkera 1953an deszifratu baitzen eta han irakurtzen zena greziera arkaikoa izan arren, artean lan filologiko latza egiteke zegoen. Eta, azkenik, jatorri arrotz eta ilunekoak azaltzeko orduan substratuzko hizkuntza bat onartzen du, pelasgikoa deritzona, hau da, greziarrak bere lurralde historikora sartu baino lehen batzuen ustetan Grezia aldean egiten zen indoeuropar jatorriko hizkuntza.

5. Latinaren alorrean Ernout-Meillet-en hiztegi famatua aipatu behar da.

Dictionnaire étymologique de la langue latine. Histoire des mots (1932) izenburuak aditzera ematen duen bezala, hiztegian sarrerek bi zati dituzte, bata filologikoa, non hitzaren lehen agerpena, hedadura, erabilera eta pareko esanahiko hitzekin duen erlazioa azaltzen diren, besteak beste, eta zati etimologikoa, askoz ere zehatz eta laburragoa. Gainera, idazkera bateratua izan arren zati historikoaren arduraduna A. Ernout izan zen, eta etimologikoarena A. Meillet. Hiztegia eredu bihurtu zen eta lau agerraldi izan zituen, azkena 1959an, bakoitzean zuzenketak eginaz eta datu berriak gehituz, nahiz eta ia guztiak zati historikoan eginak izan ziren. Laugarren argitalpe-

nean Ernoutek aldaketa asko egin zituen, baina espresuki dio “J’ai très peu modifié la partie étymologique; les étymologies présentées par A. Meillet restent toujours valables, et, de celles qu’on a proposées depuis sa mort, il est bien peu qu’il eût acceptées, en raison de son caractère incertain ou arbitraire” (EM, 1959, xvi) [Meilletek proposatutako etimologiak oraindik onargarriak dira, eta haren heriotzaren ordutik hona proposatu izan direnen artean gutxik mereziko zuketan haren oniritzia].

Arrazoia du Ernoutek esatean Meilleten etimologiak onargarriak direla; kontua da gaurko ikuspuntutik ikusita onargarriak izan zitezkeen beste asko dudazkotzat eman zituela, hau da, oso hertsiki edo zorrotz jokatu zuela kog-natuak onartzeko orduan.

Un rapprochement qui n’est que possible ne saurait servir à faire l’histoire d’un mot. Les vocabulaires des langues ind-eur. sont divers; les alterations phonétiques ont eu pour consequence que beaucoup de phonemes de la plupart des langues admettent plusieurs origines, et parfois huit ou dix origines distinctes, ainsi *f*- initial en latin; les procédés de formation des mots sont multiples; les sens sont flexibles. Ceci posé, c’est merveille si, en se bornant à l’élément radical du mot, on ne trouve pas, dans une ou l’autre des langues de la famille, deux consonnes et un sens vague qui permettent un rapprochement à un comparatiste exercé disposant de beaucoup de dictionnaires. (EM, 1959, vii-viii)

Balizko alderaketa batek ez luke balio izan behar hitz baten historia egiteko. Hizkuntza indoeuroparren hitzek iturri bat baino gehiago dute; beraz, aldaketa fonetikoaren ondorioz hizkuntza gehienetako soinu askok iturri bat baino gehiagotatik etor daitezke, batzuetan zortzi edo hamar iturri ezberdinetatik, latineko hasierako *f*-a bezala. Hitzen eraketak ere askotarikoak dira; zentzuak malguak. Hau hala izanik, ez da harriztekoa ikertzaile trebe batek, hitzaren errora mugatzen bada eta hiztegi kopuru dezentea eskuragarri badu, arazorik ez izatea [IE] familiako hizkuntzetako batean bilatzen duen alderaketarako bidea eman dezaketenean bi kontsonante eta esanahi lauso bat aurkitzeko.

Konturatu behar gara Meillet ez dela ari urrutiko hizkuntzekin egiten diren erkaketei buruz, hots, substratuzko hitzak, mailegu ilunak eta antzekoak azaltzeko orduan egiten diren erkaketa mota ohikoei buruz, baizik eta

familia bereko hizkuntzen arteko erkaketez. Hau da, metodoak eskatzen duen zorrotasun osoa familia barruan aplikatu behar dela aldarrikatzen du.

Jatorrizko hitzetan, etimologiak, onargarria izango bada, baldintza batzuk bete behar ditu:

- Hitz baten etimologia onargarria izan dadin, ez da nahikoa hitz hori IEzko erro bati atxikitzea: hitz horren egitura, balorea eta erabilera zehazki argitu behar dira. Ez da nahikoa latinezko *ferō* aditz forma grezierazko φέρω /ferō/ eta sanskritoazko *bhārāmi* formekin lotzea. Argitu behar da, zergatik latinak flexio mistoa, tematikoa eta atematikoa duen, zergatik forma batzuk monosilabikoak diren eta beste batzuk bisilabikoak, aditzaren esanahia burutugabea edo inperfektiboa den, aditzaren orainaldian bakarrik erabilia, ezen erroak ez du aoristorik ez perfektorik erutzen; horretarako erro ezberdina erabiltzen da: *tuli* – *latum*.

Hitzaren familia barruko hedadura ere azpimarratu behar da: orokorra den edo eskualde batekoa soilik. Orokorrek aukera gehiago dute proto-hizkuntzaren garaikoak edo ondare zaharrekoak izateko, familia eremuaren muturretan lekukotzen diren hitzek bezala: *credo*, *rex* edo *lex*. Bestalde, *porcus* ‘txerrikume’ hitzaren hedadura (eta beste askoren hedadura berdina) ikusita, pentsa daiteke latinak mendebaldeko hizkuntzekin, hau da, zelta eta germanikoarekin, harreman estuak izan zituela, aipatutako hizkuntzetan soilik lekukotzen baita hitza.

Meilletek garrantzi handia eman zion hitzaren gizarte mailari eta erabile-rari, ez baitira hitz guztiak berdinak: batzuk oinarrizkoak dira (ideia orokorrenak, ekintza funtsezkoenak, etab. adierazten dituzte), beste batzuek, ordea, izaera herrikoa dute (alde formalean ere antzeman daitekeena: *a* bokalismoa, geminazioa, eta afektibitate kutsua darie) eta aurrekoak baino aldakorragoak dira. Hitz jasoek eta herrikoiek bilakabide ezberdina izan dezakete. Erromantzeen historian hau gauza ezaguna da, erromantze guztiek dituztelako lantinetik eskolaren edo liburuen bidez hartutako hitz jasoak (kultismoak) eta herrikoiak, ahozko tradizioaren bidez sortutakoak, *capitulo* eta *cabildo* bikoteak eta ehunka halakok erakusten duten moduan.

Hizkuntza indoeuropar zaharren historian idatzizko eragina ia ezinezkoa da, baina hala ere uste du zenbait hitzek *–lingua* ‘mihia’, *os* ‘hezurra’, *lien*

'barea' bezalakoak-, beste batzuek baino aldakortasun handiagoa erakusten dutela, *lingua*-k hasieran *l*- duelako, germanierazko *tongue*-k **d*- eskatzen duen bitartean, eta *ossum*, *os* hitzek (cf. skr. *asthi*, gr. *osteon*) beste inon gertatzen ez den *-*st*- > -*ss*- bilakaera dutelako, latinean bertan erregulararki jasotakoetan gertatzen ez dena, cf. *hostis* : germ. **gasts*.

Idea erakargarria egiten zait, nahiz eta aipatu gorputz zatien adibideetan zaila den azalpen garbia aurkitzea. Mingainaren kasuan, esaterako, ematen du herrikoia izatean baino gehiago tabuak ukitzen duen gorputz zatia izatean dagoela aldakortasun horren arrazoia. Dena den, hizkuntza baten barruan hitzek modu ezberdinean jokatzen dutela sumatzen denean, hau da, batzuek erregela finkoei hurbiletik jarraitzen dietela eta beste batzuek aurrekoek markatutako erregulartasunetik ihes egiten dutela, orduan pentsa daiteke hizkuntza horretan gizarteak nolabait baldintzaturiko bi kanal edo lekto egon direla. Agian halako egoera bat behar-ko genuke onartu, baldin eta lat. *voluntate*-tik eusk. *borondate*-ra daraman bilakabidea eta Lakarraren ustez lat. *lacrima*-tik eusk. *negar*-era daramana uztartu nahiko bagenitu. Ez da ahaztu behar, dena den, erromantzezko adibide klasikoan hitz jaso eta herrikoia, biak datozela ama hizkuntza beretik, aipatutako euskal adibidean biak maileguak diren bitartean, maileguen egokitzean gertatzen diren prozesu irregularren isla izan daitezkeenak.

Ernout-Meilleten hiztegia beste hiztegi askoren erdua izan da, batez ere maisu handiaren itzalean lan egin zuten ikasleentzat. Hor ditugu P. Chantraine-ren *Dictionnaire de la langue grecque-Histoire des mots*, ereduaren zati-keta bikoitza hertsu jarraitu zuena, edo Vendryesek hasi eta oraindik burutu gabe dagoen *Lexique étymologique de l'irlandais ancien*. Alde historikoari horrenbeste garrantzi ematen ez zioten hiztegietan ere, hala nola lehen aipatutako Frisken edo Mayrhoferreanean, Meilleten eragina nabaria da: guztiak arduratzen dira lehen agerraldia edo aldaera dialektalak ematen, konposatu eta eratorrien multzoa zehazten eta hitzak ondorengo hizkuntzetan izan duen hedadurari buruz zerbait esaten.

Esan behar da Mitxelenak estimu handian zeukala Ernout-Meilleten hiztegia.

6. Euskarara bihurtuz, eta Mitxelena aipatu dudanez gero, garbi dago Mitxelena izan zela neogramatikarien metodo zehatza euskarari zuzen eta zorrotz aplikatu zion lehen hizkuntzalaria. Ez dut hemen maisuaren figura eta itzelezko ekarpena tratatuko, pare bat ideia izan ezik.

Metodo konparatiboaren eginkizuna kognatuak bilatu, ziurtatu eta euren arteko eraketaren bidez aitzin-hizkuntza berreraiki eta hizkuntza bakoitzeko formen historia modu argi batean azaltzea da. Hizkuntza isolatuek, hala ere, badute konparazioa non egin, maileguez jatorrizko hizkuntzan duten kognatuekin erkatuz.

Bide hori jorratu zuen Mitxelenak beste inork baino hobeto, eta, barne berreraiketarekin batera, duela bi mila urteko euskal sistema fonologikoaren berri eman zuen, harrezkeroztik euskal soinuek jasan dituzten bilakae-rak azalduz. Halan XX. mendearen hasieran indoeuropeistek grezieraren, latinaren edo erromanistek erromantzearen historia eta etimologiari ekarri zieten ziurtasuna eman zion Mitxelenak euskal hizkuntzalaritzari.

Bere liburu eta artikulu guztietan azalpen etimologiko asko eman arren, Mitxelenak ez zuen hiztegi etimologikorik idatzi. Bazegoen bestelako premiarik eta eginkizunik; hauen artean, *Orotarikoa* prestatzea, hain zuzen. Tovarrek euskararen hiztegi etimologikoan parte hartzera gonbidatu zue-nean, ikusi zuen ezin zitekeela etxea teilatutik hasi, filologiaren tresna aurreratu guztiak erabilia euskararen historia hobeto ezagutu baino lehen. Etimologiak egin baino lehen, idatzizko eta ahozko ondarea jaso eta aztertu behar zen. Meilleten ereduari jarraituz, hitzen lehen agerraldia, aldaera dialektalen forma, hedadura eta erabilera jakin nahi bazen, *Orotarikoak* zuen lehentasuna; latindar hiztegitantzen filologo klasikoek urteetan zehar bildutako *Thesaurus linguae Latinae*-ren funtzioa betetzera zetorren gure kasuan *Orotarikoa*. Eta *Orotarikoa* daukagunez gero, egin ahal da gaur itxurazko hiztegi historiko bat. *Orotarikoari* gehitu egin behar zaizkio, dudarik gabe, azken 30 urteetan euskararen historiaren ezagueran egin diren aurrerape-nak; hor dugu Gasteizko eskolaren eskutik argitaratu berri den *Euskararen Historia* (Gorrotxategi et al. 2018).

7. Indoeuropar arlorantz itzuliz, Benvenisteren ekarpena aipatuko dut, besteak beste, aurkezten ari garen EHHE honetan eragin handia izan duelako.

Benveniste bere garaiko hizkuntzalaritza indoeuroparraren egoeraz kexu da, ez duelako berreraiketa lanetan sistematikotasunik ikusten. Urteak igarota zeuden De Saussurek eta ondokoek laringalen teoria plazaratu zutene-tik eta ez ziren honen eraginak gramatika eta hiztegieta nabaritzen. Esan dut lehenago, Frisken grezierazko hiztegia aipatzean, zein astiro joan ziren ideia berriak hizkuntzalarien artean zabaltzen. Hurrengo aipuan ondo ikus-ten da Benvenistek bere garaiko berreraiketari egindako kritika.

Ce qu'on a enseigné jusqu'ici de la nature et des modalités de la racine est au vrai, un assemblage hétéroclite de notions empiriques, de recettes provisoires, de formes archaïques et récentes, le tout d'une irrégularité et d'une complication qui défient l'ordonnance. On enregistre des racines monosyllabiques (*BHER-) ou dissyllabiques (*g^weyə); des racines bilitères (*dō-), trilitères (*per-), quadri-litères (*leuk-), quinquilitères (*sneigwh-), des racines à voyelle inté-rieure (*men-) ou à diphtongue (*peik-); à voyelle initiale (*ar-) ou à voyelle finale (*pō-); à degré long (*sēd-) ou à degré zéro (*dhək-): à diphtongue longue (*srēig-) ou brève (*bheudh-), à suffixe ou à élargissement, etc. On serait en peine de justifier et même d'énumé-rer complètement tous les types de racines qui sont attribués à l'in-doeuropéen.

Il y a ici un abus de mots qui trahit une doctrine indé-cise. On n'obtient pas de l'indo-européen en additionnant les diverses formes indo-européennes d'un thème verbal ni en projetant dans la préhis-toire des particularités d'un état de langue historique. Il faut essayer, par de larges comparaisons, de retrouver le système initial sous sa forme la plus simple, puis de voir quels principes en modifient l'éco-nomie. (Benveniste 1935: 147)

Aipu luze honetan bere garaian onartzen ziren erro mota gehienak ze-rendatzen ditu. Monosilabikoak eta bisilabikoak antzinako indiar tradizio-tik zetozen, eta besteak, alorrek mende oso bateko ikerketaren ondorioz sortutako tipoak ziren. Baina De Saussurek garbi utzi zuen alde batetik bi-silaboak *ultima laryngalis* erroak zirela, eta bestetik bokal luzeko biliteroak (*dō-*, *fē-*) eta bokalez hasten zirenak (*ag-*, *ed-*) bukaeran edo hasieran larin-galen bat zuten erroak zirela (**deh*₃-, **dheh*₁- / **h*₂*eg-*, **h*₁*ed-*).

Benvenistek 1935ean erro teoria berri bat proposatu zuen proto-indoeuroperarako. Teoria horren arabera, (aditz eta izen) erroa monosilabiko eta trilateroa da, CeC egiturakoa: *ped-, *b^her-, *h₁es-, *deh₃-. Ez dago, beraz, bokalez hasten edo bukatzen den errorik. Ikusten denez, laringalen teoriaren ondorio zuzena da. Erroak bokal bakarra onartzen du bere erdigunean, egoera neutroan /e/ dena, baina azentuarekin lotuta dauden baldintza batzuetan beste bi aldaera dituen: /o/ eta zero: *ped- (lat. ak. sg. *ped-em*) / *pod- (gr. ak. sg. πόδα) / *pd- (skt. *upa-bdá-*); txandaketa horri Ablaut deitzen zaio.

Baina zer egin hiru “letra” baino gehiago zituzten ustezko erroekin, *je_ug- ‘uztartu’ (gr. *zeúg-numi*, cf. lat. *iugum* ‘uztarria’) edo *snej^{wh}- ‘elurra egin’ (lat. *ninguit*, esl. zah. *sněžb* ‘elurra’) bezalakoekin? Benvenistek dio ez direla benetako erroak, baizik eta erroa gehi luzapena: *je_u+g-, *(s)nei_u+g^{wh}-. Erro luzatuen ebidentzia lehenagotik ere ezagutzen zen, ondoko adibidean ikus daitekeen bezala: skr. *ju-hó-ti* eta gr. *χέρω* [k^héu-ō] ‘isuri’ aditz formek *g^heu- erroa eskatzen badute, lat. *fundō* azaltzeko *g^heu-d- erro luzatua behar da (kontuan izan erdiko -n- orainaldiko temaren morfema dela, erroaren bokalik gabeko zero gradua *g^hu- eskatzen duena, hau da *g^hu-n-d-). Konparazioa Benvenisteren azalpenaren alde dator lehen aipatutako *je_ug- ‘uztartu’ erroan, ezen skr. *yuv-áti* ‘lotzen du’ aditz formak garbi erakusten du luzatu gabeko *je_u- erroetik datorrela.

Baina erro luzatuak bi motatakoak izan daitezke haren iritziz: atzizki batez sortutakoak erroarekin batera txandaketa jokoan sartzen direnak, eta luzapen hutsak. Lehen motako adibideak dira: *djé_u- (skr. *dyáu-* ‘ortzi’: gr. *Ζεύς*) / *déj_u- (skr. *devá-* ‘jainko’, lat. *deus*) edo *pléh₁- ‘bete’ (gr. *πίμ-πλη-μι* [pímplēmi]) / *pélh₁- (skr. *párī-nas-* ‘ugaritasun’), formalki ondoko txandaketa honen adibideak direlarik: CCéC / CéCC. Hau kontuan hartuta, *snej^{wh}- ‘elurra egin’ erro tradizionalak formalki hiru osagai izango lituzke, haren ustez: *sen- erroa + -j- atzizkia (CCéC egituran, *snej-) + g^{wh} luzapena. Analisi eta zatiketa mota honekin indoeuroperazko erro guztiak formalki azaldu daitezke, baina kasu askotan (*snej^{wh}- ‘elurra egin’ erroarekin gertatzen den bezala), ebidentziak ez du baimentzen osagai txikiagotan erroa zatitzea eta, bestalde, ez da ikusten zein izan zitekeen atzizki eta luzapen horien funtzioa.

Benvenisteren erro teoriaren oihartzuna handia izan da, ez bere osotasunean onartua izan delako, ezen gaur egun indoeuropeista gutxi jarraitzen dute haren 1935eko teoria, baizik eta agerian jarri zuelako ezin zela berre-raiketak egin erro eta morfema egiturari buruzko teoriarik gabe. Oraingo eskuliburuetan, morfologiaren zatiarekin hasi baino lehen, normala da erroaren egiturari eta Ablaut txandaketaren bitartez hartzen dituen aldaerei zenbait orrialde eskaintzea. Gaur egun hedatuen dagoen iritziaren arabera, indoeuropar erroa monosilabikoa da, eta sonoritatearen erregelaren arabera egituratuta dago, non $C_1C_2eC_3C_4$ egitura bateko erroan muturreko C_1 eta C_4 ezin diren erdiko C_2 eta C_3 baino ozenagoak izan. Badaude gainera konsonanteen konbinazioak mugatzen dituzten legeak. Baldintza horien barruan erro mota bat baino gehiago onartzen dira, ohikoenak ondoko egiturakoak direlarik: CeC, CeRC, CReC, CReRC.

8. Joan den mendearen azken bi edo hiru hamarkadetan aurrerapen handiak egin ziren indoeuropar izen morfologiari dagokionez; ikuspegi tradizionalak desinentzien aurreko fonemaren eta flexioaren arabera izenak hainbat tematan sailkatzen zituen, izenen deklinabidean parte hartzen zuten beste fenomenoei, Ablautari edo azentuaren kokapenari, esaterako, garrantzi handia eman gabe. Baina, alde batetik, erroaren eta atzizkien egitura kontuan harturik, eta, bestetik, Ablautaren eta azentuaren arteko erlazioa hizkuntzetan nola gertatzen zen ikerturik, hizkuntzalariek lau flexio edo deklinabide mota nagusi identifikatu zituzten izen atematiko zaharretan: azentu finkoa duen akrostatikoa, eta azentu mugikorra duten hiru, lehena azentua erroaren eta atzizkiaren artean txandakatzen duen protodinamikoa, bigarrena atzizkiaren eta desinentziaren artean mugitzen duen histerodinamikoa, eta hirugarrena errotik desinentziara igarotzen duen holodinamikoa. (Ik. ikuspegi berri hau indoeuropar aditzaren eta izenaren berreraiketan kontuan hartzen duten LIV eta Wodtko et al. 2008).

Aurrerapen hauek guztiek bere ondorioa izan dute azken urteetan argitaratu diren hiztegi etimologikoetan. Adibide batekin hobeto ulertuko delakoan, hona hemen 'lurra' adierazten duen izenarekin gertatutakoa. Hizkuntza askotan lekukotuta dagoen izen honen kognatuek (gr. nom. sg. $\chi\theta\acute{o}\nu$, gen. sg. $\chi\theta\acute{o}\nu\acute{o}\varsigma$, lok. sg. $\chi\alpha\mu\acute{\alpha}\iota$ 'lurrean' : skr. ak. $k\check{s}\bar{a}m-$, gen. $j\acute{m}\acute{a}h$, loc. $j\acute{m}\acute{a}n$: aves. $\zeta am-$, $\zeta am\bar{o}$: lit. $\check{z}\acute{e}m\acute{e}$: esl. zah. $\zeta emlja$: irl. zah. $d\acute{u}$, don , etab.)

hasierako kontsonantearen lekuan hots korrespondentzia berezia eta nahiko arraroa erakusten dute: grekozko lokatiboak, avesterak, lituanierak, eslavierak eta sanskritoazko genitiboak *gh- eskatzen dute, irl. zaharrak *dh- eta greko eta sanskritoazko beste formek soinu konplexu bat: *ghd̥, thorn deitua izan dena. Izenaren bokalismoari eta Ablautari erreparatuta ondoko forma nagusiak berreraikitzen ziren: ak. *ghdēm-, ghđōm-, gen.-abl. *gh(đ) m-és, eta bokal luzeko nom. *ghđōm-, Pokornyren IEW hiztegiak dakarren bezala. Grezieran hitz bukaerako -m > -n bilakatzea erregularra da, gero deklinabidera, antzinako lokatibora izan ezik, zabaldu dena. Tokharierazko tkam eta batez ere hititerazko teekan 'lurra' lekukoak agertu zirenean, garbi gelditu zen Pokornyk onartutako protoforma oker zegoela.

Modu batera edo bestera, berreraikitzen zen formak bi herskari zituen hitz hasieran erroaren egitura kanonikotik urruntzen zutenak, eta bestalde hititerak kontsonante bi horien artean zuen bokala zaharra izan zitekeen. Orain hitzaren analisisia beste modura egiten da: *d^hg^h- ez da erroaren hasierako kontsonante konplexu bat, baizik eta *d^heg^h- erroaren C₁ eta C₂ kontsonanteak, zeinei -em- atzizkia gehituz *d^heg^h-m- egiturazko hitza eratorzen den. Hizkuntzetan agertzen diren formen jatorria ondoen azaltzen duen deklinabide mota holodinamikoa izan daiteke: nom. *d^hég^h-om, ak. *d^h(e)g^h-ém-m, gen. *d^hg^h-m-és. Deklinabide hau (edo oso antzeko bat) ez da inon bere osotasunean gorde, ez eta hititeraz ere, hizkuntza partikularretan analogiazko berrikuntzak egon direlako. Aurrerapen hauek guztiak, alde batetik filologiak eskaini duen materiala eta bestetik hizkuntzalaritzak proposatu dituen azalbideak, jasoak izan dira azken urteetan argitaratu diren hiztegi etimologikoetan, hititeraren hiztegian esaterako ikus daitekeenez (Kloekhorst 2008, s.v. tēkan /takn-).

Indoeuopar protoformaren berreraiketarako hititeraren formak duen garrantzia ez izan arren, aurkikuntza berri batzuk hizkuntza ezagun bateko hitzen historia hobeto ulertzeko lagungarri izan dira. Lehenagotik ere onartzen zen irl. zah. dú, don 'lurra' eta duine 'gizakia'-ren arteko erlazioa gr. χθών 'lurra' eta χθόνιος 'gizakia'-aren artekoa bezalakoa zela, bikotearen bigarrena -jo- atzizkiaren bitartez eratua; gero irlandiararen historiaren momentu batean hasierako kontsonante multzoak lehen belarra galduko zuen kontsonante horzkaria utziz. Vercellin aurkitutako inskripzio galiar batean irakur

daitekeen TEUOΨTONI[O]N /dewo-χdoniōn/ dvandva motako hitz elkar-tuak (latinezko zatian “deis et humanis” itzuli izan zena) garbi utzi du pro-tozeltan ‘gizakia’ χdonios edo γdonios zela, metatesia izan duen *ghdhom-formatik datorrena. Italikozko lekukoek, ordea, ez dute metatesia pairatu (lat. *homo* < *(dh)ghom-on-).

9. Aipatu dudan adibideak eta honek bezala beste askok garbi erakusten dute azken hamarkadetan indoeuropar hizkuntzalaritzan egin diren aurre-rapenek eta bereziki erroaren egiturarekin eta ablaut-azentuari buruzko deklinabidearekin zerikusia duten azalpenek hiztegi etimologikoetan bere ondorioa izan dutela. Pokornyren hiztegia, datuetan aberatsa eta alde horretatik oraindik erabilgarria izan arren, zaharkitua gelditu da, ez duelako islatzen gaur egungo hizkuntzalaritzak duen ikuspegia. Horretara dator Lei-dengo eskola aurrera eramaten ari den egitasmoa. Azken helburua den in-doeuroperaren hiztegi etimologiko gaurkotua egin ahal izateko pentsatu dute hizkuntza partikularren hiztegiatik hasi behar zutela. 2005ean jada lehen hiztegia (frisiera zaharrarena) argitaratu zenetik beste hamabi hiztegi argitaratuak izan dira, grekoarena eta latinarena barne. Helburua Indoeu-roperaren hiztegia egitea delako, aipatutako hiztegi gehienak jatorrizko hi-tzak bakarrik tratatzen dituzte, izenburuetan bertan aditzera ematen den bezala: hititeraren *Etymological Dictionary of the Hittite Inherited Lexicon* (Kloekhorst 2007) edo eslavieraren *Etymological Dictionary of the Slavic Inherited Lexicon* (Derksen 2007), esaterako. Alde horretatik ez dira aurreko belaunaldiak sortutako hiztegiak bezalakoak, ezen substratuzko hitzak eta maileguak, edozein hizkuntzaren lexikoaren zati direnak, ez dira tratatuak izan. Leidengo sail honetan salbuespen nabariena Beekesek idatzitako gre-zieraren hiztegi etimologikoa da (Beekes 2009). Garbi dago egileak azken hamarkadetan Greziako substratuzko hizkuntzari buruz egindako hainbat ikerketa hiztegian sartu nahi izan duela, bere ustez Friskeren hiztegiak alor honetan zituen akatsak eta hutsuneak zuzendu eta bete nahian.

Sail bateko aleak izan arren, irakurlea konturatuko da hiztegi guztiak ez direla metodo berbera erabiliz idatziak izan, batzuk datu baseen ondorioak direlarik beste batzuk aurreko tradizioko hiztegien ustiatzean oinarritu bai-tira. Dena den, badute guztiek ezaugarri bat aurreko belaunaldikoek nor-malean ez zutena: hiztegia egiteko orduan kontuan izan dituzten teoriak,

ikuspuntuak eta hautuak berariaz azalduak izatea. Hau guztia hitzaurreei emandako orrialde kopuruan islatzen da. Ernout-Meilleten hiztegian, formatu handikoa izanda ere, hitzaurreak sei orrialde besterik ez bazuen hartzen –Walde-Hofmannen LEW edo Frisken GEW askoz ere laburragoak ziren–, Leidengo hiztegi berri hauetan hitzaurreak 20 orrialdetik gorakoak dira normalean, batzuk hizkuntzaren gramatika historiko osoa aurkezteko aukera hartzen dutelarik, Kloekhorstek 150 orrialdeko hitzaurrean egiten duen bezala. Hitzaurre horiek ez dituzte egile guztiek gauza berberak azaltzeko erabili, nork bere interesen edo ikuspegiaren arabera baizik. Hala, Derksenek balto-eslavieraren azentuaren bilakaerari ematen dio garrantzia, zenbateraino izan zitekeen bilakaera hori amankomuneko ezaugarri bat eta hortik nola joan zen aldatuz adar bakoitzean geroago. Ikusten denez, zuhaitz filogenetikoaren ikuspegi batean balto-eslavierak izan zezakeen izaeraren eta existentziaren beraren auzia dago egilearen burutapenen azpian. De Vaan (2008), latinaren eta italikoaren hiztegia moldatzerakoan, italikoa nola uler daitekeen azaltzeaz gain, hizkuntzaren periodizazioaz arduratzen da, kontu honi orrialde batzuk eskainiz. Beekesek, ordea, 35 orrialdeko hitzaurre luzean substratuzko hizkuntza –Pre-Greek deritzona– nolakoa izan zitekeen azaltzen saiatzen da, haren sistema fonologikoa eta beste zenbait ezaugarri grezierak hartu dituen maileguetatik ondorioztatuz; material hori ikertu ahal izateko lehenago irizpide metodologikoak azaltzen ditu, bereziki substratuzko hitzek erakusten dituzten aldaeren ugaritasuna. Garbi dago EHHE, hitzaurreak liburuan duen luzerari dagokionez, joera berri honetan lerratzen dela.

10. Orain arte etimologiaren alde formala aztertu dugu, nahiz lege fonetikoaren erregularitasuna zein erro eta morfemen egitura, horretan ikusi duela indoeuropar hizkuntzalaritzak bere burua seguruen. Etimologiak badu, ordea, alde semantiko bat, esanahiaren bilakaerarekin lotuta dagoena eta berreraiketa lanetan berreraiki behar dena ere. Hizkuntzalariek badakite aldaera semantikoak tipologia ezagun batzuetan sailkatu daitezkeela, hala nola esanahiaren esparrua zabaltzea edo murriztea, balorea goratzea edo gutxiestea, metaforaren eragina, tabua, ukipenaren ondoriozko transferentzia, etab. Hizkuntza guztietan atzeman daitezke aipatu aldaketak, baina soinuen aldaketekin ez bezala normalean aldaketa semantikoak banan-ba-

nan azaldu behar dira. Hiztegi historiko batean, materialaren ugaritasunaren arabera, ez da zailegi izango hitz baten bilakaera semantikoa jarraitzea. Baina berreraiketan hizkuntza familia bateko kognatuen esanahiak elkarrengandik urruti daudenean, nahiko zaila izaten da protoformaren alde semantikoa zehaztea, batez ere erroen kasuan. Egoera honen aurrean Pokornyren (IEW) joera ahal den esanahi zabalena eta orokorrena proposatzea izan zen, gero familiako hizkuntza bakoitzak esanahiaren esparrua zentzu batean edo bestean murriztuko zuena. Hau da, aldaketa mota guztietatik bat bakarrik, murriztearena, erabili zuen berreraiketarako tresna gisa, arrazoi honengatik kritikatu izan zelarik.

Herri edo garai bateko kulturen errotutako usadio edo ohiturak ulertzea beharrezkoa da hitzen esanahiaren bilakaera eta kognatuen arteko harremana behar bezala azaltzeko. Behin baino gehiagotan gertatu da alderdi formalengatik sumatu besterik ez zegoen kognazioa guztiz egiaztatu dela esanahien arteko ezberdintasuna modu egoki batean azaldu denean.

Hona hemen adibide gisa lat. *damnum* ‘kaltea, galera, xahupena’ hitzaren kognatuekin gertatutakoa. Ernout-Meilleten hiztegiak, hitzaren esanahia, erabilera eta gainerako datu filologikoak eman ondoren, etimologiari dago-kionez hau dio: “Le rapprochement avec *daps*, souvent proposé, est indémonstrable; toutefois, l’identité de *damnum* et des mots arm. *tawn*, v. isl. *tafn* est séduisante. Peut-être ancien terme religieux. V. *daps*”. Formaren aldetik *damnum* **dap-no-m-en* bilakaera erregularra da, *somnum* ‘loa’ **sop-no-m* formarena den bezalaxe; bigarren honek hitz familia bereko du *sopor* eta kognatutzat skr. *svápná-* eta gr. *hupnos* ‘loa’. Era berean, lat. *daps* ‘sakrifizioa, bazkari errituala’ hitzak agerian du *damnum* hitzaren **dap-* erroa, baina esanahiaren aldetik urruti dago. Bestalde, arm. *tawn* ‘jain’ eta islandiera zah. *tafn* ‘sakrifikatuko den animalia’ esanahiaren aldetik lat. *daps*-ekin lotzen dira, eraketaren aldetik lat. *damnum*-en parekoak direlarik. Jatorrizko **dh(e)h₂p-* erroaren esanahia proposatzerakoan gehienek ‘sakrifizioa’ edo ‘sakrifizioaren ondoko oturuntza’ lehenetsi dute, lat. *damnum* eta gr. *daḗane* ‘nekea, xahupenak’ bankete handiek dakartzaten xahupen eta galerak adierazten dituztelarik (ik. De Vaan 2008, s.v. *daps*: “PIE **dh₂p-* is attested for the specific meaning ‘cutting pieces of meat from a victim, preparing a sacrificial meal’”). C. Watkinsek irl. zah. *dúan* ‘poème, chant poétique’ lat. *dam-*

num-en kognatutzat hartu zuenean (Watkins 1976), hitz familiaren barruko erlazio semantikoak modu ezberdin batean ikusi zituen. Zer partekatzen zuten irl. zah. *dúan* ‘poema’-k eta lat. *damnum*-ek? Antzinako Irlandako kulturaren agintarien ekintzak, normalean, zerbaiten truke poeta profesionalak sortutako poemaren bitartez goratuak izaten ziren: printzeak edo agintariak jasotako poemarengatik ordainsaria ematen zion egileari. Watkinsen ustez *-no-* atzizkiz eratutako hitzek hartu-emanetan sortzen diren opariak eta ordainsariak adierazten dituzte: nahiz saritu behar den poema (irl. zah. *dúan*), nahiz ordaindu behar den kaltea edo galera (lat. *damnum*), nahiz jainkoen faborengatik egiten diren sakrifizioak. (ik. LEIA, s.v. *dúan*).

Ez nuke Buck-en hiztegia aipatu gabe zati honekin bukatu nahi. Buck (1949) ez da hiztegi etimologiko bat, hizkuntza indoeuropar nagusietako sinonimoen bilketa baizik, hau da, egileak sarrera kontzeptual baten barruan hizkuntza partikularretan kontzeptu hori adierazten duten hitzak batzen ditu, euren jatorri etimologia gehituz. Hiztegi guztiz originala da, eta, ohiko zentzuan ez bada ere, konparatiboa, helburu horretarako, esanahia hartu arren konparaziobide eta ez jatorrizko forma. Hiztegiak aukera paregabea ematen du hitzen arteko harreman semantikoak aztertzeko eta, batez ere, familiaren adar bakoitzean hitzen ordezkapenak nola suertatu diren ikertzeko. Aldaketa semantikoak banakakoak direla ahaztu gabe, adibide argigarri asko aurki dezakete hiztegi honetan ezaguera gutxiko hizkuntza familietako edo euskara bezalako hizkuntza isolatuetako etimologiagintzan ari diren hizkuntzalariek.

11. Aurreko ataletan indoeuropar hiztegiak izan dituen arazo bartzuk erakutsi ditut, eta azaldu dut nola egin zaien aurre familiaren ezaguera eta hizkuntzalaritzaren ikerketak aurrera egin ahala. Euskararen hiztegi etimologiko bat egitea askoz ere lan zailago eta neketsuagoa da, baina hala ere hemen aurkezten ari garen EHHEk bikainki gainditu ditu oztopo guztiak. Garbi dago hiztegiaren alderdi historikoa bestea baino ondorio sendo eta seguruagoetara heltzen dela, urte askotarako baliagarria izango dena. Gorago esan dudan bezala, horren atzean ez bakarrik *Orotariko Euskal Hiztegia*, baizik eta azken 30 urteko ikerketa filologiko sakonak daude. Hiztegi honetan irakurleak agian etimologia bitxi eta harrigarriak aurkituko ditu, baina inolaz ere ez Blevinsen etimologiaren antzekoak, zeinek *asmo* gazt. zah. *as-*

mar-ekin zerikusirik ez duen hitz jatorrizkotzat hartzen duen edo *Izpea Axpe* 'haizpe'-ren aldaera gisa hartu beharrean 'secret' bezala ulertzen duen (< *hitz* + *behe*). Cf. Blevins 2018, 358 eta 204. Honek esan nahi du lekuko en ezaugarri guztiak, batez ere agerraldien kronologiari, hedadurari eta testu inguru filologikoei dagozkienak, kontuan hartuak izan direla azalbide historiko eta etimologikoetan.

Lekuko en azterketa hertsitasunez egin arren, etimologiagintzan beharrezkoa da denboraren ardatzean atzera egitea eta lehenagoko fase bateko egoera berreraikitzea. Hori bakarrik lortzen da, eta euskararen kasua ez da berezia, kognatuen arteko konparazioaren bidez. Eta hauxe da, nire ustez, hiztegi honen ekarpen nabariena: dozenaka lotura aurkitu direla ustez erlaziorik gabeko hitzen artean, kognatu aurkitu berri hauek askotan hitz familia zabalak osatzen dituztelarik. Baina indoeuropar hizkuntzalaritzan ez bezala, non kognatu berriak lehenagotik ezagutzen den hizkuntza arteko kognatu zerrendan sartzen diren (ikus irl. zah. *dúan*), hemen hitz familia osoak agertzen zaizkigu, erroaren teoria berriak eta zenbait bilakaera fonetikok eskatzen dutenaren arabera hitzak analizatu ondoren. Erroaren teoriarik gabe ezinezkoa zitekeen askotan erroa identifikatzea eta familiako hitz ezberdinetan izan dituen aldaketak azaltzea, hala nola metatesia, asimilazioa, desagertzea, etab. Egia da horietako bilakaera askok ez dutela niri gus-tatuko litzaidakeen ziurtasunik, gehienbat ez dagoelako kanpotik laguntza eman dezakeen kognaturik. Hasiera-hasierako erkaketan esanahia kontuan izan arren, erro teoriaren alde formalak hartzen du lehentasuna eta konparatutako hitzak, semantikoki urruti egon arren, kognatutzat hartzeko joera dago, gehienetan homonimiari esparrurik utzi gabe. Oztopoak gainditzeko, hitzen kasuan, aldaketa semantikoaren paraleloak bilatzen dira, eta, morfemen kasuan, gramatikalizazio prozesuez baliatzen dira. Esan behar da paraleloak eta adibideak munduko hizkuntza familia askotan aurkitu dituztela, eta ez horrenbeste oso ondo ikertua izan den indoeuropar familian. (Ik. Gorrochategui 2020: 305-306).

Hiztegi honek ez du aitzindaririk euskal hiztegiagintzan, bide berriak ireki baititu euskal lexikoaren etimologiagintzan. Seguru nago proposamen jakin batzuk oniritzi handia erdietsiko dutela eta beste batzuk ez dutela iraungo, baztertuak edo aldatuak izango direla, jakina, baina, liburua proposamen

interesgarri eta iradokitzailez josita dagoenez gero, etorkizuneko ikerketaren bidea markatuko du. Ez zait gelditzen hiztegi honen egileak zoriontzea baino, euskaldun arrunten eta filologoek jakin-mina beteko duen obra bikain eta miresgarri hau gure eskuetan jartzeagatik.

Erreferentziak

BEEKES, R. (2010). *Etymological Dictionary of Greek* (2 tomo), [Leiden Indo-European Etymological Dictionary Series 10]. Leiden / Boston: Brill.

BENVENISTE, É. (1935). *Origines de la formation des noms en Indo-européen*, Paris : Maisonneuve.

BLEVINS, J. (2018). *Advances in Proto-Basque reconstruction with evidence for Proto-Indo-European-Euskarian hypothesis*, New York / London: Routledge.

BOISACQ, É. (1916). *Dictionnaire étymologique de la langue grecque, étudiée dans ses rapports avec les autres langues indo-européennes*, Heidelberg / Paris 1916 (1938³ aurkibidea gehitua).

BUCK, C.D. (1949). *A Dictionary of Selected Synonyms in the principal Indo-European languages*, Chicago.

CGL = *Corpus Glossariorum Latinorum*, a Gustavo Loew inchoatum ed. Georgius Goetz, III, Leipzig 1892.

de VAAN, Michiel (2008). *Etymological Dictionary of Latin and the other Italic languages*, [Leiden Indo-European Etymological Dictionary Series 7], Leiden / Boston: Brill.

DELG = P. CHANTRAINE (1968-1999). *Dictionnaire étymologique de la langue grecque*. Paris.

DERKSEN, R. (2008). *Etymological Dictionary of the Slavic inherited Lexicon* [Leiden Indo-European Etymological Dictionary Series 4], Leiden / Boston: Brill.

EHHE = J.A. Lakarra, J. Manterola, I. Segurola (2019). *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

EM = A. ERNOUT & A. MEILLET, *Dictionnaire étymologique de la langue latine. Histoire de mots*, Paris, 1932 - 1939 - 1951 - 1959.

GEW = FRISK, H. (1960-1979). *Griechisches etymologisches Wörterbuch* (3 tomo), Heidelberg: C. Winter.

GORROCHATEGUI, J. (1987). «Vasco-Celtica», *ASJU* 21: 3, 951-959.

——— (2019). *Opera Selecta Joaquín Gorrochategui II: Palaeohispanica. Indoeuropea*, Vitoria-Gasteiz 2019: UPV-EHU.

GORROTXATEGI, J., IGARTUA, I. & LAKARRA, J.A. (arg.) (2018). *Euskaren Historia*, Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco-Eusko Jaurlaritza.

GORROCHATEGUI, J. (2020). «*Fontes Linguae Vasconum: orígenes y documentos para una Historia del Euskara*», Santazilia, E. et al. (arg.), *Fontes Linguae Vasconum 50 urte*, Pamplona-Iruña: Nafarroako Gobernua, 295-313.

HUMBOLDT, W. von. *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispaniens vermittelt der Vaskischen Sprache*, Berlin: Dümmler [gaztelaniaz: *Primitivos pobladores de España y lengua vasca*, F. Echebarria (arg.), Madrid 1959].

IEW = POKORNY, J. (1959). *Indogermanisches etymologisches Wörterbuch*, Bern /Stuttgart.

KEWA = MAYRHOFER, M. (1956-1980). *Kurzgefaßtes etymologisches Wörterbuch des Altindischen* (4 tomo), Heidelberg.

KLOEKHORST, A. (2008). *Etymological Dictionary of the Hittite inherited Lexicon*, Leiden /Boston: Brill.

LEIA = VENDRYES J. et al. (1959). *Lexique étymologique de l'irlandais ancien*, Dublin : DIAS.

LIV = RIX, H. et al. (2001). *Lexikon der indogermanischen Verben. Die Würzel und ihre Primärstammbildungen*, Wiesbaden: Reichert.

ROHLFS, G. *Estudios sobre el léxico románico*, Madrid 1979: Gredos.

WALDE, A. & J.B., HOFMANN (1938). *Lateinisches etymologisches Wörterbuch* (3 tomo), Heidelberg 1938 (1982³): Winter.

WALDE, A. & J. POKORNY, J. (1927-1932). *Vergleichendes Wörterbuch der indogermanischen Sprachen* (3 tomo), Berlin – Leipzig.

WATKINS, C. «The etymology of Irish *dúan*» *Celtica* 11, 1976: 270-277.

WODTKO, D., IRSLINGER, B., SCHNEIDER, C. (2008). *Nomina im indogermanischen Lexikon*, Heidelberg.